

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Igor Herrarte Letona

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1978)*

Aurkibidea



Biografia



Kaletarra, baina baserriarekin lotura izan duena. Ama Maringoa (Eskoriatza) eta aita Arrasateko Miravalles baserrikoa (San Andres auzoa). Ingeniaria. Hikari buruzko elkarrizketa egin genion, Xabier Elkorobarrutia lehengusuarekin batera. Igorri guraso biek hika egin diote umetatik eta senitartekoen artean ere asko entzun du. Bera 20 bat urterekin hasi zen erabiltzen, mutil batzuekin (neskekin ez; arrebarekin ez du hika egiten). Seme-alabei hika egiten die: semea jaio zenean, hari hika egiten hasi zen eta orduan erabaki zuen alabari ere hika egitea (aurretik zuka egiten zion).

Zintak

ARR-205

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-06-12
- **Iraupena:** 104 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Lagunekin hitanoz egiten noiz hasi ziren

- **Erref:** ARR-205/009
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:09:28. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xabierri gurasoek eta ia familia osoak beti egin diote hika. Umetan, lagunaren artean ez zuten hika egiten, nahiz eta jakin. Inguruko herri txikietako ikasleak haiekin eskolara joaten hasi zirenean, eta haiek hika egiten zutela ikustean konturatu zen Xabier beraiek ere bazekitela hika eta horrela komunikatzeko aukera zutela. Gaur egun, 20 bat pertsonarekin egiten du hika Arrasaten. Lantokian ere egiten dute.

2. Seme-alabei hika egiten die

- **Erref:** ARR-205/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Alabari hika egiten dio, baina horrez gain mutilekin bakarrik egiten du hika. Arrebak ez du inoiz hika egin, baina badaki. Alabari hasieran ez zion hika egiten, baina seme txikiari bai. Emazteak esanda hasi zen alabari ere hitanoz hitz egiten. Ez zaio kostatzen txip-a aldatzea.

3. Hitanoa gizonek gehiago erabiltzen dute

- **Erref:** ARR-205/011
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ohitura faltagatik ez die emakumeei hika egiten. Emakumeei ez die inoiz entzuten hitanoz hitz egiten, baina ziur dago egon badaudela. Aurreko belaunaldikoen artean ere, gizonezkoek hitanoa gehiago erabili izan dutela uste du.

4. Lehengusuen artean betidanik hika

- **Erref:** ARR-205/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:17:12. **Bukatu:** 00:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lehengusuak dira eta betidanik hitz egin dute hikaz beraien artean. Lehengusinarekin eta arrebarekin ez, ordea.

5. Hitanoz lagun taldean

- **Erref:** ARR-205/015
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xabier musika-talde baten dabil eta hainbatekin hitanoz egiten du.

6. Hika egiteagatik burlak jaso

- **Erref:** ARR-205/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xabierrek ez du entzun inoiz hikaren inguruko iritzi txarrik, baina gurasoek gaztetan bai. Igorren kasuan, hamalau bat urte zituenean, mutil batzuek burla egiten zioten hitaniz hitz egiteagatik. Gaur egun, oso zaila da hika hitz egiten duen jendea topatzea kaleetatik.

7. Arrasateko hika hiztunaren perfila

- **Erref:** ARR-205/017
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Arrasateko hika hiztunaren perfila: gizonezkoak, helduak eta gehienbat baserri jatorrikoak.

8. Hizkuntzaren txip-a aldatzea batzuetan zaila da

- **Erref:** ARR-205/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Xabierren emaztea, hikako ikastaroan ibili da, baina berari zaila egiten zaio 20 urtez zuka ibili ondoren, hikara aldatzea.

9. Arrasaten euskara gutxi entzuten da

- **Erref:** ARR-205/019
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:28:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Arrasaten euskaraz entzutea geroz eta zailagoa da, eta hitanoa berreskuratzeko lehenengo euskara berreskuratu beharko litzake. Nahiz eta eskoletan dena euskaraz izan, ingurua erdalduna da eta horrek gaztelaniaz hitz egitera eramaten du gizartea.

10. Arrasaten hitanoa bultzatzea ez da lehentasun bat

- **Erref:** ARR-205/020
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:28:04. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskaraz bizitzeko aukera duen norbaitentzat edo gizarte batentzat, erronka bat izan daiteke hitanoa bultzatzea. Baina euskararen egoera txarra den lekuetan, ez. Errezagoa da gaztelaniaz bizitzea, inguruak hori errazten duelako. Errezagoa da Oñatira joan eta hango norbaitekin hika egitea, Arrasaten egitea baino.

11. Euskalkiak, bai edo ez?

- **Erref:** ARR-205/023
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:39:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalkiak mantentzeko zailtasunez hitz egiten du Xabierrek. Igorrek, ordea, euskalki asko egoteak hizkuntza zatitu bat egotea ahalbidetzen duela uste du. Euskararen jatorriaren eta garapenari buruz hausnartzen dute.

12. Hizkuntza txikiak zatituta egoten dira

- **Erref:** ARR-205/025
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:39:21. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hizkuntza txikiak zatituta daudela uste du Igorrek. Hizkuntza ezberdin bat hitz egiten duen gizarte bat, estatu boteretsu baten menpe dagoenean, hizkuntza hori oso zatituta egoten da.

13. Hizkuntza bateratu baten abantailak

- **Erref:** ARR-205/027

- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:44:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hizkuntza guztiek daukate elkartzeko edo banatzeko gaitasuna, eta geroz eta egitura boteretsuago bat egon, hizkuntza bateratu bat egongo da. Euskalkien kasuan, leku ezberdinetako jendea elkartzen bada, zein euskalkitan egingo den eta horretarako hizkuntza bateratu baten abantailak zeintzuk diren azaltzen dituzte. Prozesu luzea dela uste dute, normaltasunez eman beharko litzatekeena.

14. Euskalkien galera, euskara batuaren alde

- **Erref:** ARR-205/029
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:46:32. **Bukatu:** 00:49:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batua indartzeko, euskalkien eta ondorioz herri nortasunaren galera eman dela dio Xabierrek. Igorrentzat, etorkizun batean jende gehiagok euskara erabiltzen badu, entitate batek goitik indarra egingo duelako izango da.

15. Hizkuntza baten helburua

- **Erref:** ARR-205/030
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:49:22. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hizkuntza baten helburua komunikatzea bada, hizkuntza bateratuago bat behar dela uste du Igorrek. Denok euskalki berdinean hitz egingo bagenu, euskara indartsuagoa izango litzateke. Igor, ordea, ez dago ados.

16. Hitanoaren inguruko arauak

- **Erref:** ARR-205/035
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren inguruan dauden idatzi gabeko arauak errespetatzeari buruz hitz egiten dute. Momentu zehatzetan, eta ikasteko bada, ondo ikusten dute. Xabierri behin ikasle batek hika egin zion galdera bat, eta honek hika erantzun. Ikasleak ez zion Xabierri ulertu, eta kontestu horretan adibidez, ez du ikusten hika erabili behar denik, agian beste batzuei ere kostatu egingo zaielako ulertzea. Baina, ulertzen du ere arauetatik kanpo erabili egin behar dela, oso jende gutxik duelako aukera hikaz hitz egiteko familia barruan.

17. Hitzak elkartzeko joera

- **Erref:** ARR-205/038
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:03:34. **Bukatu:** 01:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Helduagoek, hitzak elkartzeko joera dutela uste du Igorrek.

18. Euskalki ezberdinak ulertzeko gaitasuna

- **Erref:** ARR-205/041
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:07:58. **Bukatu:** 01:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalki ezberdinak ulertzeko gaitasuna. Askotan hitz konkretuak ulertzea zaila da, baina kontestuan esan nahi dena ulertzen da. Anekdotak bat kontatzen du.

19. Mugikorrik gabeko garaia

- **Erref:** ARR-205/043
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:09:43. **Bukatu:** 01:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Mugikorraren erabilera mugatu egiten du Xabierrek eta telefonoa isilik izaten du ia beti. Mugikorrik ez zegoen garaian, autonomoagoak ginen eta itxaroten genekien. Distantziak motzagoak dira mugikorra dugunetik eta poliki-poliki bizitza aldatu digula uste dute.

20. Irakurzaletasuna

- **Erref:** ARR-205/045

- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:13:36. **Bukatu:** 01:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Xabierrek gehienetan gaztelaniaz irakurtzen du, ez hizkuntzagatik, edukiagatik baizik. Irakurzaletasunaz eta eskola garaiko literatura irakasgaiaz hitz egiten dute.

21. Emakumearen paperaren aldaketa

- **Erref:** ARR-205/046
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:17:27. **Bukatu:** 01:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumearen bizimodua hobetu egin da garai batetik hona, nahiz eta oraindik asko falta den. askotan, matxistak ez garela uste dugu, baina bagara.

22. Garai batean haur gehiago zeuden

- **Erref:** ARR-205/050
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:23:56. **Bukatu:** 01:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Umeak zirenean, askoz ere hau gehiago zeuden. Gaur egun, Arrasaten haur gehien dituen auzoei buruz hitz egiten dute. Arrasateko jende asko Aretxabalaetara bizitzera joan zen, etxebizitza aukerak zirela eta.

23. Herrigintzarekiko konpromezuaren aldaketa

- **Erref:** ARR-205/053
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 01:27:45. **Bukatu:** 01:31:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Garai batean, gauza egiteko taldekako joera bat zegoen. Gaur egun, ordea, indibidualagoa da. Horren ardura, beraien adinekoak dutela uste du Xabierrek. Gauza batzuk onerako aldatu dira, baina beste batzuk ez.

24. Baserritarra izatea edo baserrian bizitzea, ezberdina

- **Erref:** ARR-205/054
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:31:39. **Bukatu:** 01:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ez da berdina baserritarra eta baserrian bizi dena. Gaur egun, baserriaren irudia erromantizatua dagoela uste du Xabierrek. Baserritik bizitzeak kostu handia dauka. Ez da berdina garai bateko baserriaren bizimodua edo gero lantegira lanera joan zenarena.

25. Baserritar gutxi geratzen dira

- **Erref:** ARR-205/055
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:34:02. **Bukatu:** 01:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gaur egun, baserri asko oso apainduta eta edertuta daude, baina baserriari lotutako lanbideak eta jakituria galdu egin dira. Jende gutxi dago baserritik bizi dena. Baserriko lanen, produktuen, mekanizazioaren... aldaketak. Garai batean, jendeak gauza asko zekiskien egiten, konpontzen, berrerabiltzen...

26. Gaur egun ez dakigu ezer egiten

- **Erref:** ARR-205/056
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:37:53. **Bukatu:** 01:39:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gaur egun, edozer gauza egiteko delegatu egiten dugu (gela bat margotu, txorrota bat aldatu...) eta garai batean, norberak edo inguruko batek egiten zuen. Gaur egun, gauza gutxiago egiten dakigu.

27. Baserritik bizi nahi duenarentzat, laguntzak

- **Erref:** ARR-205/057
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:39:24. **Bukatu:** 01:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sistema bat topatu beharko litzateke, baserritarrak beti egoteko eta baserritik

bizi nahi duenarentzat erreztasunak jartzeko: alokairuan, saltzen lagundu,
mekanizazioan lagundu... Xabierrek kasu bat kontatzen du.

Herrarte Letona, Igor | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com